



## **NAN eta PASAPORTEA BERRITZEA**

**NANaren unitate mugikorra Auritzera etorriko da. Interesaturik daudenek izena eman behar dute telefono honetara deituz 948768011 (Anabel) edo helbide hauetako batera [administracion@burguete.es](mailto:administracion@burguete.es) - [administracion@erro.es](mailto:administracion@erro.es) idatziz, izena eta abizenak eta telefono zenbakia adierazita, 2026ko urriaren 23ko 14:00ak baino lehen. (Gutxienez 30 pertsona behar dira eta azaroan izango da).**

**NAN > TASA: 12,00 euro (ESKUDIRUTAN)**

**Familia ugariak doan (ezinbestekoa da indarreko familia ugariko titulua aurkeztea)**

### **DATUAK ALDATU GABE IRAUNGITZEAGATIK BERRITZEA**

- NANa
- Argazki berri 1 (koloretakoa, fondo zuria, aurpegia garbi)

#### **NANa BERRITZEA, GALDU EDO LAPURTUZ GERO**

. Salaketa egin bada, agiria ekarri behar da. Agiria berritu behar duenak 14 urte baino gutxiago baldin badu, aita, ama, tutorea edo ahalordedunarekin etorri beharko du, pertsona horrek ere NANa aldean daramala.

. Kasuen arabera, baliteke argazkia behar izatea.

#### **NANa LEHENENGO ALDIZ EGITEA**

. Hitzek hitzeko Jaiotze Ziurtagiria, Erregistro Zibilak egin (gehienez ere 6 hilabete lehenagokoa) eta "NANa egiteko bakarrik luzatua".

. Erroldatze ziurtagiria (kontuan hartu 3 hilabeteko balioa besterik ez duela izaten)

. Argazki berri 1 (koloretakoa, fondo txuria, aurpegia garbi)

. Agiria berritu behar duenak 14 urte baino gutxiago baldin badu, aita, ama, tutorea edo ahalordedunarekin etorri beharko du, pertsona horrek ere NANa aldean daramala.

#### **SEME-ALABATASUNEKO DATUAK ALDATZEA**

. Argazki berri 1 (koloretakoa, fondo txuria, aurpegia garbi)

. NANa

. Datu-aldaketa egiaztatzen duen jaiotza-ziurtagiri literala (duela 6 hilabete baino gutxiago egin).

. NANa indarrean badago, datu-aldatzea doakoa da.

**PASAPORTEA > TASA: 30,00 euro (ESKUDIRUTAN)**

**Familia ugariak doan (ezinbestekoa da indarreko familia ugariko titulua aurkeztea)**

- Argazki berri 1 (koloretakoa, fondo txuria, aurpegia garbi). Duela bi urte baino gutxiagoko NAN elektronikoa baduzu, ez duzu argazkirik behar.
- Indarrean dagoen NANa
- 14 urtetik beherakoa bada eta NANik ez badu, Hitzek Hitzeko Jaiotza Ziurtagiria ere ekarri beharko du, pasaportea lortzeko egin dagoela jasotzen duena (salbu eta Espainian emandako pasaportea izan badu).
- Pasaportearen titularra 18 urtetik beherakoa bada, aita eta amarekin (biak) etorriko da, indarrean dauden NAN/AIZak aldean dituztela (edo Hitzek Hitzeko Jaiotza Ziurtagiriarekin). Tutoretzapekoen kasuan, tutore diren pertsona guztiak etorriko dira, NAN/AIZ eta tutorea izendatzeko epaia aldean dutela.
- Indarrean dagoen pasaportea galdu edo lapurtu eta salaketa egin baduzu, ekarri egin beharko duzu.
- Aurreko pasaportea, oraindik iraungita ez badago.